

«Guk sinesten dugun adina dago gure esku: etorkizuna»

Durangotik Iruñera bitarteko 123 kilometroak elkarri eskua emanda osatzea da erronka. Baita kor da. «Pentsa gauzak nola aldatu diren: iaz ekimena aurkeztu genuenean ez ginela iritsiko zioten batzuek, eta, orain, erdi txantxetan, laburregi geratu gara rela diote», kontatu du Angel Oiarbidek.

Herriz herri egin dituen aurkezpenetan «poztasuna, esperantza, ilusioa, konplizitatea...» ikusi ditu herritarren begietan. «Sentitu egiten da, zabaldu egiten da», dio. Eta Angel bera ere, sentipen horretaz elikatzen da. Izan da esker onez hurbildu zaionik. «Adineko pertsonak zera diote: 'Ez nuen uste ilusioa berriz sortuko zitzaidanik'. Bizitzaren perspektiba hain zabala duenak hori esatea handia da. Gauzak ondo egiten ari gara», adierazi du, konbentzimendu osoz.

Ekainaren 8a mugarria bai, baina ez da helburua. Bidearen hasiera izango da. «Urte askoan egon gara Quebecera begira. 2014ko udan eta udazkenean munduko kamera piloa egongo dira Eskoziara eta Kataluniara begira. Testuinguru horretan sekulako aukera daukagu ekainaren 8an besoa altxatu eta 'gu ere hemen gaude', 'guk ere erabaki egin nahi dugu' esateko», dio.

Iaz egitasmoa aurkeztu zenute-nean irudikatzen al zenuten gaur egungo egoera?

Oso gustura gaude. 2013ko ekainaren 8an aurkeztu genuenean sinatuko genuen honek hartu duen zabalkundea izatea. Zenbat jende inplikatu den! Irudikatu irudikatzen genuen, baina lan asko zegoen egiteko agertoki honetara iristeko. Lehenengo Idiazabalen bertan eta ondoren Goierriin egin genuen bidea. Euskal Herriko eragile mordo batekin hausnartu ondoren hasi ginen Gure Esku Dago dinamika-ekin. Herriz herriko aurkezpenetan nire sentsazioa argia izan zen: «ze herdoilduta gauden, artikulazio guztiak ze gogortuta ditugun...». Horixe zen gure errealitatea.

ANGEL OIARBIDE

GURE ESKU DAGO EKIMENENKO BOZERAMAILEA

Horrexek ematen digu lan gehien euskaldunoi: gure esku dagoela sinesteak. Baina gauzak, pixkanaka, aldatuz doaz Angel Oiarbideren esanetan. Ekainaren 8a mugarria izango delakoan dago.

xole.aramendi@gaur8.info

Giza katea burujabetza prozesuetan erabilitako teknika da. Duela 25 urte herri baltikoetan erabili zen eta ondoren Kataluniako Diada egunean.

Bai, herrialde baltikoetan Katalunian bezala 400 kilometro ez, 800 egin zituzten. Gure ekintza guztiek herritarrak dituzte protagonista. Giza kateak ere bai, halaxe izango baita Euskal Herriaren etorkizunean ere.

Zer dago gure esku?

Guk sinesten dugun adina dago gure esku: etorkizuna. Nelson Mandelak zioen errealitatea hor dagoela, aldatzen den arte. Guk geuk barneratzen badugu gure herriaren etorkizuna erabakitzea gure esku dagoela, alferrik ibiliko dira kanpoko eragileak. Herritarrok sinesten badugu, horrela izango da.

Gure Esku Dago egitasmoa abertzaleen topagunea bakarrik izan ez dadin saiatu zarete. Agerpen publikoetan lortu da, herrietan ere bai?

Bai. Euskal abertzaleak daude, abertzaleak ez diren euskaldunak daude, eta nazionalista espainolak direnak ere bai. Mugimendu honetara gehitu diren pertsona asko alderdi politikoe-tako militantziatik kanpo zeuden herritarrak dira. Era honetako gaitan orain arte pausurik eman ez duten pertsonak. «Elkarrekin aritu gaitezke, zergatik jartzen ditugu hainbeste lubaki batzuen eta besteen artean?», diote. Izan ere, lubakiak ez dira benetakoak, artifizialak dira.

Nazioen Mundua plataformaren aurkezpen egunean, Idiazabalen, bi pertsona agertu ziren frontoian: bat EAJko zinegotzia eta bestea ezker abertzaleko ordezkaria. Biek irudikatzen dituzte sentsibiltate desberdinak eta biak dira pertsona errespeta-tuak herrian. Eskema guztiak hautsi ziren! Ordura arte eremu birjina zen eta gero ikusi da fruituak ematen dituela. Idiazabaldik Goierriara pausua eman genuenean 35 pertsona izan ziren aurkezpenean. Ametsik one-nean ere ez genuen pentsatzen antzeko ezer ikusterik... Hain sentsita geunden euskaldunon

artean elkarlana ezinezkoa zela! Sinesmen horrek jarrera jakin bat dauka atzetik... Esadazu zein etorkizun geneukan. Gainera, gezurra zen! Nolatan iritsi gara horretara?

Gure Esku Dago aurrerapausoa da zentzu horretan?

Ekainaren 9ko egunkariak eskuan izatera itxaron gabe ja esan dezakegu dinamika arrakastatsua izan dela.

Sentipen hori transmititu al di-zuete herritarrek?

Makineria martxan jartzeko beharrezkoa den gasolina, ilusioa, oso garesti egon da. Eta orain ikusten ari gara. Adin eta sentsibiltate desberdinetako pertsonen motibazioan ikusten da. «Bazen garaia!», behin eta berriz ari gara entzuten. Bizkaian, Ezkerraldean, gertatu den fenomeno izugarria da. Bertakoek hala diote. Aurkezpenetara joan eta herritarrek eurek egiten dute komentarioa: 'Denetarik zagok! Zein ederra!'. Bitxia da, baina herri denetan ohartarazten dizute beren herria 'oso zaila' dela, eta, ostean, aurkezpen guztietan izaten da positiboa izan den sentsazioa.

Gainera, Euskal Herrian badaukagu eredua: kooperatibak. Nik ez dut ezagutzen kooperatiba bat bere osotasunean euskal abertzalez osatuta dagoenik. Kooperatiba guztietan dabil sentsibiltate ezberdinetako jendea eta elkarrekin hartzen dituzte enpresaren norabidearen gaineko erabakiak. Hori egunero gertatzen da. Kolektibitate handi-ago batean, zergatik ez?

Zeintzuk izan dira gakoak?

Orain arte, gelan ikasleek beza-la, ordezkariak geneuzkan jendartean. Hasieran ardura arindu egiten digute ordezkariak, baina epe motz batean ahaztu egiten dituzu zure benetako gaitasunak zeintzuk diren. Ondoren, ez sinestera pasatzen zara, eta, azken fasean, menpeko bihurtzen zara. Eta hala geunden, zain, ea ezagutu ere egiten ez dugun la-gun taldea bulego batean bildu eta guk merezi dugun zoriontasuna eta ilusioa ekartzen digu-